

## ANALISIA



Zaintza langileen egoera duintzearen alde lanean ari da Zumaiaiko Malen Etxea elkarteak.

## Stephen Hawking eta Eusko Labeldun esklaboak



**Axier Lopez**

@axierL

ARGAZKIA: BALEIKE

Jane Wildek 19 urte zituela ezagutu zuen Stephen Hawking. Ordurako bi urteko bi-zi-itxaropena diagnostikatu zioten Hawkingi. Halere, Wildek 25 urtez zaindu zituen zientzialaria eta elkarrekin izan zituzten hiru umeak. Gizona XX. mendeko astrofisikorik ezagunena bilakatu zen eta emakumea haren lehen emazte.

Sare sozialetan bolo-bolo ibili den testu batean Roy Galán idazle galziarrak ez du zalantzarako tarterik uzten: "Hawkingek izan zuen gaixotasun larria bere emazteak eduki izan balu, emaztea beste emakume batek zaindu beharko zuen; zientzietako jenio batek, gizon batek, ezingo baitzuen bizitza alferrik galdu inoren zaintzan". Hori ez dugu inoiz jakingo, baina ziurra dena da Hawking aberatsa zela. Eta diruarekin dena eros omen daitekeen gizarte honetan hain intimoa den zaintza ere eros zezakeen. Baina soldata arrunta duen euskal herritarren gehiengoak? Dependentsia egoera antzeko batean izanez gero, 365 egun eta 24 orduko zaintzari nola egingo genioke aurre? Poltsikoari erreparatuz gero, erantzuna argia da: ezinezkoa. Baina egunero zenbat emakume ikusten dugu adineko norbaiten alboan, zaintzan? Datuek argiago diote: EAEn 12.000 bat emakumek egiten dute lan etxe barruko zaintzan. Horietatik 4.000

Errumania, Portugal eta Bulgariatik etorri dira, beste guztiak, Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikakoak dira. Etxe barneko zaintzan ari diren pertsonen %80 emakume atzerritarrak dira.

Beraz, ekonomikoki zerk egiten ditu posible 24 orduko zaintzak? Gakoa emakume migratuek beraiek emango digute: esklabotza. Zumaiaiko Malen Etxearen "Errealitatea eraldatu, lan berdina denontzat" txostenak esklabotza erabiltzen du etxe barruko emakumeen egoera definitzeko, baita galdera lazgarriak luzatu ere: irudika dezakegu emakume heldu batentzat zer den denerako baimena eskatu behar izatea? Sartu, atera edo jan egiteko? Aisialdirako denborarik gabe bizitzea? Eta hori guztia inolako lan eskubiderik gabe (8 orduko lanaldia, oporrak, bajak, egun libreak...) eta gehienetan lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez den ordainaren truke.

Zainduak izateko beharra dugunean, urrunetik ekarritako emakume baten beharra dugu. Euskal Herrian eskaintzen dizkiegun baldintza 'esklabo jatorrak' onartzeko beste aukerarik ez duten bakarrak direlako. Baina egoeraren gordina ikusita, zergatik ez da arrabotsik sortzen administrazio publikoak lanbidea duindu dezan? Bada, antza, ez dugulako ikusi nahi, gizarte gisa zatartzen gaituen ispilua da. Agian horregatik dio mugimendu feministak, prostituzioarekin batera zaintza dela emakumeen ikusezintasunaren adibiderik gordinena.

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Gezurra eta xantaia



Juan Mari Arregi

Joan den astean Espainiako Kongresuan pentsioen inguruko eztabaida izan da; berriz ere, espainiar gobernuaren xantaia eta gezurrak agerian geratu dira. Bereziki Mariano Rajoyren diskurtsoak eragin du "sute" handiena eta joan den larunbatean milaka pentsionista kalera atera ziren beste behin masiboki, batez ere Hego Euskal Herrian.

Rajoy kapitalismoaren kudeatzailer fidela da, eta sistemak inposatzen dion bidea hartu du: pentsioak pribatizatu finantza entitateak elikatze. Horretarako gezurra esaten du: ez dago dirurik pentsioak ordaintzeko, are gutxiago egungo pentsio sistema publikoa etorkizunean mantentzeko. Denbora irabazi eta kaleko presioa saihesteko, hobekuntzaren bat iragarri du, gehiegi zehaztu gabe, gutxieneko pentsioa jasotzen dutentzat eta alarguentzat, baina Estatuko aurrekontuak onartzearen truk. Gainerako alderdiei eskatu die parlamentuan aurrekontuak babes-teko, eta bestela... kito! Pentsionisten egoeraren arduradun oposizioa izango da, bera ez babesteagatik. Xantaia lotsagarria!

Gezurra da ez dagoela dirurik pentsionisten egoera aldatzeko. Ez dagoena da borondate politikorik. Bada dago dirua NATOri urtean 20.000 milioi euro ordaintzeko. Badaude beste 60.000 milioi euro bankuak erreskatatzeko, 2.000 milioi autopistekin gauza bera egiteko, eta milaka milioi monarkiarientzat, ejertzitoarentzat, politikarientzat... Lehen-tasun kontua da, ea nola banatzen dugun aberastasuna. Eta kapitalismoaren zerbitzura dagoenak, PP kasu, lehen-tasun horiek ditu. Euskal Herriak subiranotasun ekonomiko eta politikoa aldarrikatzen dugu, baina herritarren eta langileen interesei erantzuneko dien gizarte segurantzaren bat kudeatzeko izan dadila. Zeren eta, bai, hemendik ere Rajoyk bezala kudeatu daiteke.